

## Udako Txokoetan izena emateko epea irekitzear

Ttakun Kultur Elkarteak martxoaren 23tik aurrera hartuko ditu izen-emateak; aurreneko egunean, Internet bidez / 8-9

**Herritar ugarik parte hartu du Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako ardo dastaketan** / 2

**Koronabirusa saihesteko neurriak hartzen hasi dira: Biyak Bat egoitza eta ikastetxeak, itxita** / 3

**Herriko gazteria aktibatzen 'Martxoan da' egitasmoa jarri dute martxoan** / 4

**Buruntzazpi txirindularitza eskolako kideak eduki hasi dira errepideko lasterketetan lehian** / 10



## Herioaren eta haurraren arteko dialogoa

Pablo Barrio herritarren 'Hankazikin' antzerki liburua argitaratu du Begikok / 5

TXINTXARRI

**TTAKUNEN UDALEKUAK 2020**

**Izen-emate epea**  
Ttakuneko bazkideentzat, iaz ibilitakoentzat eta Gazte klubeko eta Kuadrillategiko gaztetxoentzat:

**Martxoaren 16an, Online: 9:30etik 16:30era.**  
**Linka: <https://labur.eus/udalekuak2020>**  
(plaza kopuru totalaren erdia)

**Martxoaren 17an, bulegoan bertan.**  
9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara  
(plaza kopuru totalaren erdia)

**gainerakoentzat: martxoaren 18tik maiatzaren 8 arte.**

- **LH3-LH4 ATXONDO** (Lekunetxe, Bizkaia)  
Uztailaren 16tik 23ra
- **LH5-LH6 DONEMILAGA** (Errotazarra, Araba)  
Uztailaren 3tik 14ra
- **DBH 1 eta 2: uztailaren 3tik 14ra**
- **DBH 3 eta 4: uztailaren 16tik 27ra**

**2car** Zumaburu kalea 18  
20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 24 63

**Continental**  
The Future in Motion

Adituek konfidantza dute gugan, eta zuk?

Continental erosteagatik  
**100 €** arte erregaia lor dezakezu  
Apirilaren 7ra arte edo izakinak amaitu arte

# Astegunak, ardo eta pintxo artean

Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak antolatuta, laugarren urtez, kolore, usain eta zapore desberdinetako ardoak dastatu dituzte herritarrek zenbait tabernetan: Buenetxea, Eguzki eta Zubietan. Hogeitabat herritarrek parte hartu dute, batez beste

## Maddi Zaldúa - Iñigo G. Sarobe

Astelehen arratsaldean Buenetxea tabernan entzuna: "Normalean, larunbat eta igandetan egiten ditugu horrelako planak, baina asteke edozein egun da aproposa ardo on bat dastatzeko". Horrela ekin zion ardo dastatze ekitaldiari Roberto Ortiz de Pinedok, Principe de Viana taldeko ordezkari komertzialak. Berak gidatu zuen saioa, asteke lehenengoa. Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak lau kata antolatu ditu Buenetxea, Eguzki, Zubietan eta Viña del Mar tabernetan. Herritar ugari animatu dira ardoaren munduan gehiago murgiltzera.

Buenetxean bost ardo dastatu dituzte: txuri bat, gorri bat eta hiru beltz -sei, hamabi eta hamalau hilabetez ondu dituzte-, Rioja Vega upategikoak. Ortiz de Pinedok etxearen historia azaldu du, dastatzera gerturatu direnen kopak betetzen hasi aurretik. 1882. urtean martxan jarri zuten ardanegi hori, Haron (Errioxa). Hogeitabat pertsonak parte hartu dute dastatze ekitaldian. Pintxoak janez lagundu dituzte ardo tragoak: patata tortilla, urdaiazpikoa, solomoa, txorizoa eta gazta. Tabernaren jabeek ere adi-adi jarraitu dituzte Ortiz de

Pinedoren azalpenak. Iluntzeko bederatzia aldera bukatu da dastatze saioa.

Eguzki tabernan izan da bigarren saioa, eta Ramon Bilbao upeltegiko lau ardo ekarri ditu Josetxo Arzallusek herritarrek probatzeko. %100 verdejo motako mahatsarekin egindako ardo zuriarekin hasi da dastaketa, eta lehen tragoari laguntzeko pate pintxoak jarri dituzte mahai gainean. Hemeretzi lagun bildu dira, eta ardo gorri bat eskaini die bigarren aukeran. Gazta eta antxoa mokadutxoarekin lagundu dute bigarren tragoa, eta gehienei, lehena baino gehiago gustatu zaiela antzeman da. Horren ostean, 2016. urteko ardo ondu batekin ausartu dira, eta horrek ere izan du bere anoa lagun: muskuilu betea. Gustura aritu dira tragoa eta mokadua jan bitartean, elkarrekin hizketan eta iritziak partekatuz. Azkenekoa ere ardo beltza izan da; erreserbako bat. Laugarren hori urdaiazpiko

## BERTAN BEHERA UTZI DUTE AZKENEKO SAIOA, VIÑA DEL MAR TABERNAKOA, KORONABIRUSAGATIK

kroketa egin berriekin batera dastatu dute.

## Ardo zuriak Zubietan tabernan

Kolore bakarrek ardoak dastatu dituzte Zubietan tabernan, baina elaborazio eta zapore desberdinekoak: chardonnay, txakolina, rueda eta ribeiroa. Juanjo Molano herritarrek eman dizkie azalpenak ekitaldira gerturatu diren herritarrei. Kata hasita zegoela pertsona gehiago etorri ziren, eta estu samar zeudela ikusita, lokalaren beste aldera joatea erabaki zuten. Izan ere, mahaia beteta zegoen, eta ez bakarrik botila eta kopekin: edandakoa ezkondu dute langostino egosiak eta urdaiazpikoa janez. Ardo zuriei buruzko azalpenak Juanjo Molano herritarrek eskaini ditu: elaborazio prozesua, edariei zein tenperaturan egon behar duten... Kontzeptu ugari ikasi dituzte Zubietan bildu direnek.

Asteke azken dastatzea, ostegun arratsaldekoa, Viña del Mar tabernan egin behar zuten, baina bertan behera utzi zuten koronabirusak eragindako egoera dela-eta. Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak antolatu ditu topaketak, aurten laugarrenez. Hogeitabat herritar elkartu dira bakoitzean, batez beste.



Buenetxea tabernan egin zuten astelehen arratsaldeko dastatzea. TXINTXARRI



Josetxo Arzallusek gidatu zuen Eguzki tabernako ardo dastatzea. TXINTXARRI



Juanjo Molano herritarra, Zubietako ardo dastatzean azalpenak ematen. TXINTXARRI

## Gidabaimenaren zati bat doan Maddi Sukunza herritarrarentzat

2020. urteko egitasmoa martxan da eta maiatzean 18 urte bertetzen dituzten gazteei eskutitza bidaliko zaie

### Txintxarri

Maddi Sukunza Gomez gaztea *Gidabaimena euskaraz* egitasmoa irabazlea da, Lasarte-Orian. Sukunzak azterketa teorikoan gastatutako dirua berreskuratu du, 290,40 euro, euskaraz azterketa

egin eta gaintitzeagatik. Asteazkenean jaso zuen saria Jon Antxordoki Euskara batzordeburuaren eskutik.

Buruntzaldean 124 herritarrek gaintu zuten gidabaimena euskaraz, 2019. urtean. Hamar

urte dira Buruntzaldeako udalek egitasmoa martxan jarri zutela eta azken hiru urteetan gidabaimena euskaraz gaintu duten pertsonen kopuruak gorantz egin du: 2017an, 103 herritar eta 2018an, 110 herritar.

2020. urteko egitasmoa martxan da, eta maiatzean bultzada berria emango diote udalek. Izan ere, 18 urte bertetzen dituzten herritarrei gutun bat bidaliko baitzaie, gidabaimenak euskaraz ateratzeak dituen abantailen berri emanez.



Maddi Sukunzak Jon Antxordoki Euskara batzordeburuaren eskutik jaso du saria. TXINTXARRI

# Koronabirusa saihesteko neurriak hartzen hasi dira

COVID-19 birusagatiko kasuak eragozte aldera, prebentzio neurriak hartzen hasi dira Lasarte-Oriako Udala eta zenbait eragile; bertan behera utzi dituzte jarduera batzuk. Itxi egin dute Biyak Bat adinekoren egoitza, eta herriko ikastetxeak ere bai, hilabete bukaerara arte

## Txintxarr

Klaserik ez daukate gaur herriko ikastetxeetan ikasten duten haurrek. Ez gaur, ezta hurrengo hamabost egunetan ere. EAE osoko hezkuntza zentroak ixtea erabaki du Eusko Jaurlaritzak hilabete bukaera arte; COVID-19 edo koronabirus izenez ezagutzen den gaitza saihesten saiatzeko hartutako neurrietako bat da hori. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan, hauek ziren datuak: 346 kasu antzeman dituzte EAEn, eta 420 Euskal Herri osoan. Bederatzi pertsona hil dira; horietako bi, Gipuzkoan.

Adineko pertsonak dira kolektibo zaurgarrietako bat: eritasun hori har ez dezaten, Biyak Bat adinekoren egoitza itxi egin dute, Eusko Jaurlaritzak aginduta. Hortaz, bertan egitekoak ziren jarduerak atzeratu edo suspentitu egin dituzte: hilaren 26an Arnedillora joatekoak ziren, esate baterako.

Lasarte-Oriako Udalak bertan behera utzi ditu hainbat ekintza. Islada Ezkutatuak taldearekin batera *Testigantzak. Lasarte-Oria 1936-1948. Genozidio ezkutatu baten islak* liburua aurkeztu behar zuen larunbat honetan, baina kontuan hartuta gonbidatuetak asko adineko pertsonak direla, ekitaldia atzeratzea erabaki dute, data berririk iragarri gabe oraingo. Horrez gain, ostiralero egiten duten *Ondo ibili* eta *Kontent-Tu* programak bertan behera utzi dituzte. Atzo arratsaldean egin behar zuten ohiko udalbatzar saioa ere atzeratu egin dute.

Udalak jakinarazi du etengabe berrituko duela bere web orrialdea, lasarteoriatarrek jakin dezaten koronabirusaren hedapena etete aldera hartzen dituen erabakiak zeintzuk izango diren. Gomendio sorta bat ere igo du Internetera: "Herritarrei esaten diegu lasai egon daitezela; informazio eguneratua emango diegu uneoro hartzen ditugun neurri buruz".



Biyak Bat adinekoren egoitza itxita dago, ostegun goizetik. TXINTXARRI

Jarraibideak "sinpleak" eta "egiten errazak" direla azpimarratu du udalak: eskuak sarri garbitzea ura eta xaboiarekin; adinekoren eta haurren tenperatura hartzea sintomaren bat sumatuz gero; arnasa hartzeko arazoren bat edo sukarra edukiz gero 900 20 30 50 telefonora deitzea; eta herritarrek saihestea jende-pilaketak, batez ere adineko pertsonak badira. OME Osasunaren Munduko Erakundea, Espainiako Osasun Ministerioa eta Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko loturak ere jarri dituzte; gomendatu die herritarrei iturri horiek erabiltzea koronabirusari buruz informatzeko.

## Ttakun KEren jarduerak

Eusko Jaurlaritzatik etorritako osasun gomendio eta jarraibideei jarraiki, Ttakun Kultur Elkarteak erabaki du bere programetako zenbait jarduera eta ekintza bertan behera utzea gaurtik aurrera eta hamabost egunez: Kuadrillategi, Faktoria, Amaraun, Gazte Kluba, Eskola Kirola eta hizkuntza indartzeko egitasmoak ez dituzte egingo.

Horrek ez die eragingo udaleku itxi eta udako txokoen izen-emate

prozesuei: hasieran zehaztu bezala egingo dituzte, kontraktorik iragarri ezean. Udaleku itxietakoak astelehenean hasiko dira, martxoak 16; online egindako izen-emateak hartuko dituzte egun horretan, 09:30etik 16:30era, atari honen bidez: <https://labur.eus/udalekuak2020>. Hurrengo egunean, martxoak 17, lehentasuna duten pertsonen -Ttakuneko bazkideek, Gazte Kluba zein Kuadrillategi egitasmoetako erabiltzaileek eta iaz udako ekintzetan parte hartu zutenek- ahalko dute izena eman, bulegoan, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara. Udako txokoei buruzko informazioa zenbaki honetako zentraletan irakur daiteke, zortzigarren eta bederatzigarren orrialdeetan.

Ostegun arratsaldean, TXINTXARRI inprentara bidali aurretik, udal zerbitzu gehienak normaltasunez ari ziren lanean: irekita zeuden Maialen Chourraut kiroldegia eta Udal Liburutegia, esate baterako. Erredakzioko kideok normaltasunez jarraituko dugu lanean, kontraktorik iragarri arte. 1498. zenbakia buzoietan jasoko dute irakurleek, orain arte bezala, aldaketarik gabe.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Koroa

Koroarekin gora eta behera gabiltza azken aste hauetan. Batetik, txuri-urdinek kopa irabaztea inoiz baina gertuago daukate. Bestetik, koroa monarka askok baina fama handiagoa hartu duen birusa zabaldu da mundu mailan eta azken egunetan gurean.

Koroa monarkiarekin erlazionatu ohi da zuzenki eta ezinbestean. Bada edari baten markarekin ere erlazionatuko duenik ere, edota kantuan aritzen den ahots politzez osaturiko talde txorekin. Hitzak berak, askorako ematen du eta hainbat iritzi sorrarazten ditu. Iritzien tsunamian, koroaren azpian, errealak bere koloreak nola aireratzen dituen ezbaian jartzen dute batzuek, nolatan lehiatzen den koroaren aldarri den txapelketan. Beste batzuek, koronabirusak ezkutuko interesekin lotzen dute azkenaldian.

Lehenengo kasuan, zaletua bihotz txuri-urdina duen hori, txapelketa bat irabazteko gosez dagoen horrek, alboratuta uzten du bere antimonarkiko papera. Bigarrenengoan, koronabirusaren inguruan barre egiten dutenak daude eta guztia txikikeriatzat hartu nahi dutenak. Gerturazten ikusten duten neurrian, badaezpada ezkututzen hasten dira ordea.

Bi iritzi hauen barruan, ene burua koka nezake eta bai, kontraesan handi batean erortzen naiz; baita ni ere. Koronabirusa gertu usaintzen dudanean, ziur babes neurriak hartzen lehena izango naizela eta Espainiako erregearen kopa altxatzea nahi duen lehenetarikoa izango naiz ni ere.

Sevillan, maiatza amaieran, bat egingo dute bi koroek. Gehienek nahiko ez dugun monarkaren kopa altxatzeko asmotan. Beti ere birusa tartean sartzen ez bada. Birusa monarkikoa ote da? Zer da nahi ez duguna, kopa edo monarkia? Koronabirusaren albo kalteak ez zaizkigu axolako momentu horretan, behinik eta gure taldearen finalaz *Coronita* bat eskuan eta kideak alboan, koro baten gisara, kutsaturiko gizarte honen erritmoak ahots ozenez abesten baditugu.

## Sanpedroetako kartel lehiaketa martxan jarri du udalak

Martxoaren 20a izango da San Pedro jaiak iragartzeko kartelak aurkezteko azken eguna, astelehena. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du; lanek originalak izan behar dute, eta beste lehiaketaren batean saririk jaso

gabeak. Nahi adina afixa aurkez ditzake parte-hartzaile bakoitzak.

Formatu digitalean nahiz fisikoan bidali daitezke lanak. Lasarte-Oriako Udaleku Gazteria eta Festak batzordeak hautatutako epaimahai batek baloratuko ditu jasotako kartelak. *San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2020* goiburua inprimatuta eduki beharko dute afixek, ezinbestean.


Laster aitaren eguna da eta ez dakizu zer oparitu?

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Zator eta opari txartela prestatuho dizugu

Ustin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



'Euskal gatazkaren ertzetako biolentziak eta erresistentziak' hitzaldia eskaini du Maider Galardi kazetariak. TXINTXARRI

# Martxoa martxan jarri dute herriko gazteek

Hitzaldiz eta dokumentalez jositako egitaraua prestatu dute Lasarte-Oriako Ernai, Sorgin Jaiak eta Elebeltz Topaguneko kideek: 'Martxoa martxan da' izena jarri diote, herriko gazteria aktibatzen asmoz. Hilabeteko azken larunbatean, 28an, Gazte Eguna egingo dute

## Maider Galardi Sarobe

Martxoa martxan jarri dute hainbat eragilek: egitarau zabala prestatu dute hilabete honetarako Lasarte-Oriako Ernai, Sorgin Jaiak eta Elebeltz Topaguneko, elkarlanean. "Indartsu dator udaberria Lasarte-Oriako gazteria". Hilabete luze eta su txikitan egositako lanak emandako fruituak iragarri dituzte; *Martxoa martxan da* hitzaldi eta dokumental sorta egingo dute. Ikasturte hasieran hasi ziren identifikatzen "herriko behar eta gabeziak", erantzun bateratu bat emateko helburuz. "Ongi-etorri sutsu eta borrokalaria eman nahi diogu urtaro berriari".

Asteazken arratsaldean ireki dute egitaraua: *Euskal gatazkaren ertzetako biolentziak eta erresistentziak* hitzaldia eskaini du Maider Galardi kazetari eta doktoregaiak. Aztertzen ari da gaia ikuspuntu feminista batetik, gatazka gertutik bizi duten emakumeak agente aktiboak direla aldarrikatuz, eta ez soilik biktima,

gizarteak eta gatazkaren inguruan sortutako iruditeriak historikoki rol hori eman izan dien arren. Master amaierako lan gisa ekin zion proiektuari, eta doktoretza tesia ontzen ari da Galardi orain. Ikerketaren nondik-norakoak azaldu ditu kazetariak, eta anekdota pertsonal ugarirekin jantzi, kontaketa didaktiko eta atsegina eskainiz ikus-entzuleei.

## Gazte Eguna, hilabete bukaeran

Martxoaren 28an, larunbatekin, arestian aipatutako ekimenei "amaiera ona" emate aldera, antolatzaileek prentsaurrekoan azaldu legez, Gazte Eguna ospatuko dute herrian. Egitaraua aurrerago zehaztuko dute, baina aurreratu dituzte ekitaldi batzuk: Lasarte-Oriako preso politikoen inguruko hitzaldi bat egingo dute goizean. Ondoren, kalejira egingo dute Elebeltzeraino, elektrotzarangak lagunduta, eta han bazkalduko dute. Tiketak salgai jarri dituzte Ilargi eta Trumoi tabernetan, 12 euroan.

## Hurrengo ekitaldiak

### Gaur, martxoak 13

- 'Zizelkariak' dokumentala emango dute Mirentxun, 18:30ean. Topatu Gazte Proiektu Komunikatiboaren eskutik.

### Martxoak 18, asteazkena

- 'Sobrevivir' dokumentala emango dute Mirentxun, 20:00etan. Lasarte-Oria, Usurbil, Donostia eta Oñatiko lau ikaslek grabatu eta ekoiztu dute.

### Martxoak 24, asteartea

- 'Joko aretoak itxi' hitzaldia Antonio Mercero aretoan, 18:30ean, Mikel Suso Ernai eta Judimendiko Gazte Asanbladako kidearen eskutik.



FormaNAEN proiektuaren aurkezpen ekitaldia. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

## Heziketan aurrera egiteko, mugaz gaindiko elkarlana

Usurbilgo Lanbide Eskola FormaNAEN proiektuan ari da lanean, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako hainbat zentruarekin batera

### Txintxarri

Usurbilgo Lanbide eskola FormaNAEN proiektu berritzaileari forma ematen ari da. Usurbilgo Lanbide eskolak bultzatuta, mugaz gaindiko proiektua gauzatzen ari dira Administrazio espezialitatea duten Euskal Herriko hainbat eskolen artean. Hain zuzen ere, Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantiko eremuak.

POCTEFA proiektuari esker jarri ahal izan dute martxan ekimen berria. EAEK eta Pirinio Atlantiko eremuak mugaz gaindiko lanbide-heziketa funtsezko

tresnatzat dute eta hau indartzeko, hasierako eta etengabeko lanbide-heziketaren arloan lankidetzan aritzeko esparrua dute.

### FormaNAEN egitasmoa

Egun, proiektuaren lehen pausoak ematen ari dira. Horretarako, administratibo batek mugaren bi aldeetan aritzeko behar dituen gaitasunak definitzen eta edukiak garatzen ari dira hezkuntza zentruak. Etorkizunean, Usurbilgo Lanbide Eskolak ikasleei formakuntza berezia eskainiko die mugaren bi aldetan lana egiteko gaitasunak lortzeko.



XUMELA KORUA

## Juan Gorritirekin kantuan

Xumela koruko kideek Nafarroan pasa dute asteburua, Juan Gorriti eskultorearen lana ezagutzen, eta harekin kantuan. Iruñeko Ciudadelara joan ziren goizean, artistak bertan duen erakusketa ikustera. Ondoren, Arribako etxera joan ziren, eskultorearen tailerrera. Hasi dira hurrengo bidaia antolatzen: maiatzean Otsagabiara joango dira, Montexio koruko kideekin batera.

# Teloia zabaldu eta herioa parez pare aurkitu du umeak

Pablo Barrio herritarraren 'Hankazikin' liburua kaleratu berri du Begiko argitaletxeak. 2007. urtean idatzitako antzerki testuarekin liburu kaleratu dute orain, eta 10 urtetik gorako gazteei zuzenduta badago ere, "edonork irakurtzeko modukoa" dela azaldu du egileak. Joseba Larretxea, 'Josevisky' ilustratzaileak jantzi du testua, bere marrazkiekin

## Maddi Zaldua

"Betidanik" maite izan du antzerkia idaztea Pablo Barriok (Agurain, 1958), baina beti euskaraz. Arreta jartzeko modukoa da azken datu hori, 25 urterekin ikasi baitzuen euskaraz Barriok. Ordurako Lasarte-Orian bizi zen, eta aitortu du erdaldun giroa zuela egunerokoa. "Literaturaren eta komunikabideen bidez jasotzen nuen euskara, eta idazten hasi nintzanean, arazoak izan nituen, pixkanaka ahozotasuna barneratzen joan nintzen arte". Oroitzen da bizilagunekin erdara hutsean harremantzen zela nahiz eta bizilagun horiek euskaldunak izan, eta, denborarekin, euskarako pausua eman zuten arren, "asko kostatu" zitzailela.

Antzerki zalea da, eta dialogoak oinarri hartuta idazten ditu bere antzerki-lanak. Hori izan daiteke nobela batekin ezberdina: elkarrizketa. Gaineratu du ohiko nobeletan elkarrizketak egon daitezkeen bezala irakur daitezkeela paisaiak, deskribapenak, egoerak, eta horiek ez direla agertzen antzerki testuetan. "Antzerki testuetan oharren bidez pertsonaiak kokatu egiten dituzu, baina oinarria dialogoa da [clownean edo mimo lanetan ez dago elkarrizketarik]".

Antzerkia idazteaz gain, herritar batek baino gehiagok ikusi du ziur oholtza gainean antzezten; Santa Ana parodian, besteak beste. "Antzerkia idazten dut, baina ez naiz aktorea".

Gazte literaturaren barruan kokatu badute ere, gaiaren aldetik edozein adinetarako "egokia" ikusten du egileak. "Pertsonaia nagusiak umeak diren heinean, umeen mundua, horien ikuspegitik planteatzen



Joseba Larretxea, Josevisky ilustratzaile irundarrak irakurtzen du eta Pablo Barrio idazlearen Hankazikin antzerki liburua. TXINTXARRI

da". Nafarroako antzerki eskolak eta Iruñeko Udalak antolatutako haurrentzako antzerki testu berrien lehiaketan euskarazko saria jaso zuen 2007an. Orduaz geroztik, itzalpean egin ditu 13 urte, baina azkenean lortu du argitaratzearen ametsa idazleak. "Garai hartan, argitaratzeko saiakerak huts egin zuten. Heriotzaren gaia tabua izan da urte luzez, eta zer esanik ez haurrekin... Horrek eragina izan zuen, eta ez nuen aukera handirik izan. Orain, gutxi, baina zerbait gehiago hitz egiten dugu gaiaz, eta argitaratu dute nire lana". Ez ditu beti haurrentzako antzerki testuak idatzi, helduentzako lanak ere egin ditu: Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatzen duten Toribio Alzaga saria eskuratu zuten *Ama, hor al zaude?* eta *Kontrako bidean*, eta IX. Serantes Antzerki sariaren akzesita lortu zuen

*Armiarmategian (isil-mihisilika)*, besteak beste.

**Hankazikin eta heriotza, oholtzan**  
Oholtza gaineko teloa zabaldu eta Hankazikin eta heriotza agertzen dira parez pare. "Heriotzak berarekin daraman haur bat da Hankazikin". Ez edozein modutan, ordea, izan ere heriotzak enpatia agertzen baitu Hankazikinekiko: "Heriotzaren gaia modu gozoan kontatzen dut, beti ere, gaiaren gordintasuna alde batera utzi gabe". Aitortu du gaiak seriotasuna eskatzen duen arren, umoretik ere baduela testuak.

**HERIOTZAREN ETA HAUR BATEN ARTEKO ELKARRIZKETAN OINARRITZEN DA 'HANKAZIKIN' LIBURUA**

Joseba Larretxea (Irun, 1985) Josevisky ilustratzaileak egin ditu Hankazikin liburuko ilustrazioak. Ez zuten elkar ezagutzen aurretik, baina elkarrekin aritu dira liburua osatzeko lanetan, eta "oso gustura" agertu dira lortutako emaitzarekin.

Txikitatik ari da marrazten Joseba Larretxea. Edonoren antzera, arkatza eskuan jarri eta marrazteko aukera eman ziotenetik, gaurdaino. "Beste edonor bezala lehen aldiz arkatza eskuarteetan jarri zidatenetik marrazten dut, ezberdintasun bakarra da nik ez diodala marrazkiak egiteari

**TXIKITATIK, ARKATZA ESKU ARTEAN HARTU ZUENETIK ARI DA 'JOSEVISKY' MARRAZTEN**

utzi, eta lortu dudun garapena baliatuta, profesionalizatu egin naiz". Ikasketekin komikigintza zalea da, eta aitortu du aitarengandik datorkiola zaletasun hori: "Txikitari, anaia eta biok ohean etzan eta lotarako ipuinak irakurri beharrean, komikiak irakurtzen zizkigun, teatralizatuta".

Marrazki "errealistak" egin ohi dituela azaldu du. "Pertsonaiak gehiago edo gutxiago karikatuztatzen ditudan arren, beti dute fisikotasuna, pisua eta espazioan behar bezala kokatuko ditut, eta horrek, arkitektoa naizen aldetik, eragina du nire marrazteko moduan".

*Hankazikin*-en testuari marrazkiak egiten hasteko, "ezinbestean", testua irakurri du ilustratzaile irundarrak, idatziaren tonua antzeman eta marrazkiei zer eskatzen dien identifikatzeko. "Nire estiloa alde batera utzi gabe, testura egokituta egin ditut marrazkiak". Horrela, proposamen batzuk aurkeztu zizkion ilustratzaileak idazleari, eta azken horren kontraproposamenekin eginaz osatu dituzte ilustrazioak.

Elkarlana estuagoa izan dute, ordea, heriotzari itxura emateko orduan, "modu atsegin batean definitu nahi izan dugu heriotza, gogorra da, baina aldi berean, enpatia dauka Hankazikinekiko, eta hor egin genituen aurrera eta atzera batzuk". Bestalde, pertsonaien sexurik ez da definitzen, eta euskararekin alderatu du hori idazleak. "Euskarak duen abantailatoko bat da generorik markatzen ez duen hizkuntza dela, eta lan honetako pertsonaiak ere generorik gabekoak nahi izan ditugu". Hori bai, guztiak eszenatoki batean kokatuta daude; teloa zabaldu eta irudien bidez ere ikus daiteke antzerkia dela.

Larretxek aitortu du oso erakargarria egin zitzailela Barrioren lana ilustratzea: "Heriotzaren gaiarekin gazteei zuzendutako testu bat zela jakin nuenean, zalantzarik gabe onartu nuen ilustrazioak egiteko proposamena". *Hankazikin* eskuarteetan hartuta agertu dira TXINTXARRI-ren hitzordura, eta nabarmendu dute, "gustura" aritu direla elkarrekin lanean eta "oso pozik" daudela lortutako emaitzarekin.

# Emakumearen Nazioarteko Eguna


## Martxoaren 8an, aldarrikapena

Aldarrikapen berari lotuta, ekitaldi ugari parte hartu dute lasarteorietarrek. Asteko azken egunean, igandean egokitu da aurten Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta hori horrela, aurreko egunetan eta ondorengoetan ere kolore morez jantzi da herria. Iragan ostiralean, *Berdintasunerako prest?* ginkanan parte hartzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Egun berean, helduentzako *Pase lo que pase* antzezlan eskaini zuen kultur etxean Makelur taldeak, eta gauean, afaria eta dantzaldia egin zuten Casa Humada jatetxean.

Larunbatean, berriz, V. zunba maratoiarekin bete zuten Loidibarrengo pilotalekua. Kolore moreko kamisetan soinean, saio ederraz gozatu ahal izan zuten parte-hartzaileek. Lasarte-Moriak deituta, Akelarrea ere egin zuten iluntzean. Igandean, Emakumearen Nazioarteko Egunean, urtero bezala, elkarretaratzea egin zuten, eguerdian, Okendo plazan; bertan bildu ziren herritarrak eta udal ordezkariak. Arratsaldean, aldiz, emakume zuzendarien lanak musika emanaldia eskaini zuen Zero Sette akordeoi taldeak. Asteazkenean bideo emanaldia egin dute Biyak Baten.



Urtero bezala, aurten ere Okendo plazan elkartu dira herritarrak eta udal ordezkariak



Iragan ostiralean, 'Berdintasunerako prest?' ginkanan parte hartzeko aukera izan zuten herritar gazteek. TXINTXARRI



Herritarrak, Oriako jatetxe batean egin dute aurten Martxoaren 8ko afaria. TXEMA VALLES



Makelur taldeak 'Pase lo que pase' antzezlan eskaini du Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI



Larunbatean zunba maratoia egin zuten Loidibarrengo pilotalekuan. TXINTXARRI



elkarretaratzea egiteko. TXINTXARRI



Inurrik, Koöl studioak eta Berexik antolatuta, zapi moreak egiteko tailerrean parte hartu dute zenbait herritarrek. KOÖL STUDIOA



Lasarte-Moriak deituta, Akelarrea egin zuten Okendo plazan. TXINTXARRI



Zero Sette akordeoi taldeak 'Emakume akordeoilarien lanak' musika emanaldia eskaini du. TXINTXARRI



Biyak Bat egoitzako lagunek bideo emanaldia egin dute asteazken arratsaldean. TXINTXARRI

# UDAKO TXOKOAK 2020

Sortu  
Alaitu  
Ikasi  
Maitatu  
Errespetatu  
Eraiki  
Jolastu  
Erabaki  
Parte hartu  
eta guztia,  
euskaraz egin!  
herrian eta elkarrekin!

zer egiteko  
aukera duzu?

Plazak mugatuak dira!  
Gehienez 4 izen emate  
pertsoneko.

## Izen-emateak

Martxoaren 23an, online egiteko  
aukera, 9:30etatik 16:30k arte:  
<https://labur.eus/txokoak2020>  
(plaza kopuru totalaren erdia)

Martxoaren 24ean, bulegoan egiteko  
aukera, 9:00etatik 13:00k arte eta  
16:00etatik 19:00k arte.  
Online egiteko aukera ez da egongo.  
(plaza kopuru totalaren erdia)

Martxoaren 25etik aurrera matrikula  
online eta presentziala egiteko  
aukera izango da.

Ei TXIKI, ADI!

HH3-HH4

(2015 eta 2016  
bitartean jaiotakoak)

### EKINTZAK

- Psikomotrizitate saioak
- Ipuinetatik eta jolasetik abiatuta  
asmakuntza plastikoa, gorputz adierazpena  
eta soinuarekin jolasean arituko gara.
- Tailerrak, Jolasak, Irteerak...



HH5-LH2

(2012 eta 2014 bitartean  
jaiotakoak)

### EKINTZAK

- Jostakiroa saioak.
- Gorputz adierazpenaren  
bidez mundu berri bat eraikiko  
dugu.
- Talde jolasak, Irteerak...



Erne! LH1 eta LH2: Larraulera goaz 4 egun!!

Uztailaren 1etik 17ra Udako  
Txokoetan, 20tik 23ra uda  
leku itxietako txanda bat  
eta 24tik 30era amaiera  
bikaina Udako Txokoetan!

Goitzoko gabe	Goitzokorekin
Hilabetea: 175€	Hilabetea: 201€
1. hamabostaldia: 163€	1. hamabostaldia: 184€
2. hamabostaldia: 120€	2. hamabostaldia: 134€

\*10€-ko deskontua 2 anai-arrebek eta 20€-ko deskontua 3 anai-arrebek parte hartzen badute.

gazte anima zaitez!: LH3-LH6  
(2008 eta 2011 bitartean jaiotakoak)

### EKINTZAK

- Abentura eta kirola.
- Talde jolasak eta probak.
- Tailerrak, irteerak eta abenturazko  
ekintza bereziak.





## AUKERA PAREGABEAK UDALEKUAK + Udako Txokoak

### ATXONDO (Lekunetxe, Bizkaia)

· LH3-LH4 Uztailaren 16tik 23ra

Udako Txokoak (1etik 15era) + Atxondo  
+ Udako Txokoak (24tik 30era).

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

260€ 280€  
10.00etatik 9.00etatik

Lehenengo hamabostaldia + Atxondo

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

235€ 252€  
10.00etatik 9.00etatik

Atxondo + 2. hamabostaldia Udako Txokoak

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

210€ 219€  
10.00etatik 9.00etatik

### DONEMILIAGA (Errotazarra, Araba)

· LH5-LH6 Uztailaren 3tik 14ra

Udako Txokoak (uztailak 1 eta 2) + Donemiliaga +  
Udako Txokoak, (15etik 30era).

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

325€ 340€  
10.00etatik 9.00etatik

\*Ttakuneko bazkideentzat prezio berezia

## Ordutegiak eta prezioak

Uztailaren 1etik 30era

Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba	3 anai-arreba	
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00	105 €	95 €	85 €
	09:00-13:00	140 €	130 €	120 €
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00	115 €	105 €	95 €
	09:00-13:00	150 €	140 €	130 €
HH3-HH4 Hamabostaldia	10:00-13:00	63 €	58 €	53 €
	09:00-13:00	80 €	75 €	70 €
HH5-LH6 Uzt. 1etik 15era edo uzt. 16etik 30era	10:00-13:00	68 €	63 €	58 €
	09:00-13:00	85 €	80 €	75 €

\*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

## Espazioak

TTAKUNENA (Inigo de Loiola kalea) eta  
ORRIARTE (Landaberri eraikina, Pintore, 2)

### ordaintzeko modua

Kontu korrontetik egingo da kobrantza.

### GOITXOKO ZERBITZUA

09:00etatik 10:00etara

### JANGELA ZERBITZUA

> 15:15ak arte.

Hilabetea: 95 € Hamabostaldia: 55 €

\*Plazak geldituz gero egun solteak har daitezke.

Izen-ematea online egiteko aukera egongo da. Bestela beheko orria bete eta Ttakunen bulegoan aurkeztu:

## Matrikulazio orria

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Gizarte segurantzaren zenbakia: \_\_\_\_\_

Jaioteguna: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ e-maila: \_\_\_\_\_

Ikastetxea: \_\_\_\_\_

Ikasmaila: \_\_\_\_\_

Goitzoko zerbitzua: Bai  EZ

Jangela Zerbitzua: Bai  EZ

Seme-alaba kopurua Udako Txokoetan: 1  2  3

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide: Bai  EZ  Kiroldegiko bazkide: Bai  EZ

Hilabete osoa  lehen hamabostaldia  bigarren hamabostaldia

Kontu korrante zenbakia: IBANA \_\_\_\_\_ 20 zenbakiak \_\_\_\_\_

Kontuko titularraren izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_

Oharrak/alergia/dieta berezia \_\_\_\_\_

Lasarte-Orian, 2020 / \_\_\_ / \_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

Oharra: Matrikulazio orri hau sinatzerakoan onartutzat emango da adierazitako araudia eta egiazkoak direla azaltzen diren datuak



Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrak Egia-Zumy sariko podiumean. E. POZO

## Errepide denboraldiaren hasiera bikaina

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrak podiumean izan dira: Eibarko udaberri sarian eta Egia-Zumy sarian. Etxeberria bietan garaile izan da; Carbayeda bigarren izan da Eibarren eta mendiko garaikurra ere lortu du; taldeko saria ere lortu dute Egian

### Txintxarri

Errepideko denboraldia hasi zuten otsailean Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek. Aurten, junior mailan,

Haimar Etxeberria, Beñat Carbayeda eta Asier Pozo izango dira lehian. Kadete mailan, berriz, Eneko Aranguren, Daniel Fursenko eta Adur Tapia.

Junior mailako txirrindulariek denboraldi hasiera paregabea egin dute. Otsailetik hiru lasterketa izan dituzte eta bietan lehian postuetan izan

dira taldeko kideak. Eibarko 42. Udaberri sariko podiumean eman zioten hasiera junior mailako txirrindulariek denboraldiari. 78 kilometroko ibilbideko lasterketari aurre egin behar izan zioten gaztetxoek eta azken metroetara 11 txirrindulariko taldetxo iritsi zen. Buruntzazpiko Haimar Etxeberria izan zen azkarrena eta arerio guztiak garaitu zituen, baita bere taldeko kide Beñat Carbayeda ere. Carbayedak bigarren postua eskuratzeaz gain, mendiko saria ere eraman zuen etxera.

Asier Pozok, berriz, ez zuen egunik onena izan, Etxeberria baino lau minutu beranduago iritsi baitzen helmugara.

Martxoaren 1ean, Elgoibarren jokatu zen junior mailako denboraldiko bigarren lasterketa, 88 km. Buruntzazpiko kideek ezin izan zuten podiuma zapaldu. Hala ere, Carbayeda eta Etxeberria lehian postuetan ibili ziren. Carbayeda seigarren iritsi zen helmugara, Etxeberria, hamaikagarren eta Asier Pozo hamalagarren.

Aurreko asteburuan, martxoaren 8an, Egia-Zumy saria jokatu zen, Donostian. 84 kilometrorako proban 182 parte-hartzaile izan ziren eta Haimar Etxeberriak jaso zuen garaikurra. Beñat Carbayeda laugarren izan zen eta Asier Pozok 13. postuan amaitu zuen lasterketa. Postu horiei esker, Buruntzazpi taldea ere

podiumeko koska gorenean izan zen. Kadete mailari dagokionez, Bi probatan parte hartu dute: Ibaetako sarian eta Usurbe proban.

Asteburu honetan, bi hitzordu berri izango dituzte Buruntzazpi txirrindulari eskolako kideek. Kadeteak 21. Deba sarian izango dira lehian; juniorrak, berriz, 38. San Jose sariko podiumean egoteko borroka egingo dute igandean, Azpeitian.

### Txirringatik talde teknikora

Bestalde, Iñigo Altuna txirrindulariak etapa berri bati ekin dio txirrindularitza munduan. Lasarteoriako gaztea urrian txirringatik jaitsi eta egun Caja Rural taldeko elite/23 urtez azpikoen taldeko prestatzaile taldeko kide da.

Buruntzazpi txirrindularitza eskolan eman zituen bere lehen pausoak lasarteoriatarak, 11-12 urte zituenean. Hainbat proba eta txapelketa irabazi zituen maila ezberdinetan. 2017an, Grupo Eulen Jira-Bira taldeak amateur mailan lehiatzeko aukera eman zion eta ez zuen hutsik egin, lasterketa ugarietan lehian postuetan sailkatu baitzen. Bere ibilbidean aurrera egiteko, 2018 urtean, Caja Rural taldeko elite/23 ustez azpikoen taldera egin zuen salto. Bi denboraldi taldean egin ostean, talde nafarraren organigrama teknikoan sartzeko aukera izan du gazteak. Beste ikuspuntu batetik ari da orain txirrindularitzaz gozatzen.

## Kirola ere bertan behera, koronabirusa dela-eta

Entrenamenduak, partidak eta bestelako jarduerak suspenditu egin dituzte herriko kirol elkarteek

### Txintxarri

Kirol munduak ere Koronabirusaren hedapenaren ondorioak jasan ditu. Espainiako, Euskadiko zein Gipuzkoako kirol federazioek bertan behera utzi dituzte kirol datozen egunetarako jardunaldiak. Asteazken zehar, hedapenaren araberako erabakiak hartu

behar izan dituzte lurralde ezberdinetako federazioek.

Lehenengo asteko garapena ikusirik, Espainiako kirol federazio gehienek astelehenerako hartua zuten erabakia. Espainiako Txapelketak bertan behera geratu eta datuz aldatzen zirela jakitera eman zuten.

Neurri horrek Ostadar SKTko Naroa Furundarenari eta Enara Gonzalezi eta Buruntzaldea IKTko Nora Imazi eragin zieten. Ostadarreko bikoteak atletismoko 20 urtez azpiko Espainiako Txapelketan parte hartu behar zuten asteburuan; Imazek, berriz, igeriketako infantil mailako lehiaketan aritu behar zuten.

Gipuzkoan, atzo osteguna eguerdira arte ez zen erabaki ofizialik egon. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta federazioen

bileraren ostean, 15 egunez kirol jarduerak guztiak etetea erabaki dute, bai Eskola Kirola, baita federatua ere. Horrez gain, taldeei entrenamenduak bertan behera uztea ere aholkatu dute. Hala egin du Ostadar SKT, adibidez.

Espainiako Futbol Federazioak profesional mailako partidak bakarrik jokatzea baimendu zuen. Lehengo astean, dagoeneko ateak itxita jokatu ziren ligako zenbait partida eta Real Sociedad eta Athleticeko arteko Espainiako Kopako finala ere atzeratuko zela iragarri zuten. Halere, birusaren eragina ikusita, atzo iritsi zen lehian mailako eta bigarren mailako partiden etetearen berria.

Errugbian ere partida nazionalak ateak itxita jokatuko

zirela jakitera eman zuten federazioak, baita 14 urtez azpiko maila guztietako partidak bertan behera geratzen zirela ere. Hortaz, hasiera batean, Ohorezko B mailako Belenos Rugby Club eta Babyauto Zarautzen arteko partida ikuslerik gabe jokatuko zela aurreikusitako bazen ere, azkenean, osteguneko partida bertan behera geratuko zela jakin zuten Zarauzko taldeak.

Euskadiko Saskibaloiko Federazioak aste hasieran Gasteizen jokatzen ziren partida guztiak bertan behera geratzen zirela jakitera eman zuten, baina ostegun goizean, berriz, neurri zorrotzagoak hartuta Euskal Ligako partida guztiak bertan behera uztea erabaki zuten.



Jubenil mailako derbia jokatu dute Eguzki 2KN eta Eguzki Balerdi Harategia taldeek, Maialen Chourraut kiroldegian. TXINTXARRI

## Eguzki Balerdi Harategiak irabazi du herriko derbia

Jubenil mailako bi taldeek indarrak neurtu dituzte asteburuan kiroldegian; behar gehien duen taldeak poltsikoratu ditu puntuak, 4-3 irabazita. Jardunaldi ona izan da Eguzkiren gainontzeko talde federatuentzat: guztiek lortu dute puntu bana, gutxienez

### Txintxarri

Eguzkiren harrobiko taldetako bik derbia jokatu dute Maialen Chourraut kiroldegian: Eguzki Balerdi Harategiak eta Eguzki 2KNk. Gipuzkoako jubenilen ligan lehiari ari dira biak. Puntu egarri gehiago du lehenengoak, sailkapenaren azken postuetan baitago. Nabaritu zen hori larunbat goizeko partidari, eta, bi sailkapenak kontrakoak iradoki zezakeen arren, hiru puntuak zakuratu zituen, baina ez sufritu gabe: 4-3 irabazi zuen, Telmo Galan (2), Ibai Anguiano eta Oier Perezen golekina. Eguzki 2KN taldearenak hauek sartu zituzten: Ewan Ferro (2) eta Gaizka Irazustak.

Liga bukatzeko partida gutxi falta direnean, are gehiago estutu ohi dute sailkapeneko azken postuetan dauden taldeek. Biek nahi zuten derbia irabazi, baina Eguzki Balerdiaren premia larriak desorekatu zuen balantza pasa den larunbatean. Urrezko hiru puntu horiekin, hamalau ditu

taldeak, eta hamabigarren postura igo da. Seigarren jarraitzen du Eguzki 2KNk, 31 punturekin. Sei neurketa dituzte aurretik bi taldeek.

### Bigarren postua finkatzen

Gipuzkoako 1. mailako Eguzki Aldaz Hertz Klinikak erakutsi du bera dela eskualdeko talde indartsuena: 2-5 irabazi dio Andoaingo Euskaldunari, etxetik kanpo, eta neurketa ona jokatuta. Denboraldi oso ona egiten ari dira berde-horiak, eta igoera borrokatzeko oso ongi kokatuta daude: bigarren dira sailkapenean, 43 punturekin. Lehia oso estua izaten ari da, eta Lauburu Berazubiren berdinketak mesede egin die herritarrei; bi puntu

### EGUZKI ALDAZ HORTZ KLINIKAK 2-5 IRABAZI DIO EUSKALDUNARI; BIGARRENA DA SAILKAPENEAN

ateratzen dizkiete orain. Liderra, Oiartzun KE, laura daukate -47 eta 43 puntu dituzte-. David Castiñeirak (3), Unai Ituartek eta Igor Herrero zulatu zuten andoaindarren atea.

Gipuzkoako 1. mailan ari da baita ere Eguzki Garoa Taberna. Puntu baliotsua ekarri du Idiazabaldik asteburuan, etxeko taldearen aurka bana berdinduta. Itsaso de la Torrek egin du gola. Hemeretzita punturekin, laugarren postuan jarraitzen dute. 2. mailan jokatzen ari den Eguzki ISU Leioak ere pasa den astean baino puntu gehiago ditu: bat lortu zuen Maialen Chourraut kiroldegian, ostiral iluntzean, Donibane Stokkeren kontra: 4-4koa izan zen bukaerako emaitza. Etxeko golen egileak, hauek: Roberto Garcia, Ismael Rodriguez, David Diaz eta Asier Alonso. Bolada onean jarraitzen dute berde-horiek: azken bost neurketetatik bakarra galdu dute. Hemezortzi puntu dituzte, eta hamargarren sailkatuak dira.



LOKE klubeko judoka kadeteek txapelketa bikaina egin dute Zarautzen. GORKA ARISTEGI

## Gipuzkoako txapelketa bikainak jokatu dituzte harrobiko judoek

LOKEko infantilak eta kadeteak Zarauzko tatamian lehiatu dira; domina ugari ekarri dituzte bueltan herrira

### Txintxarri

Gipuzkoako Txapelketak jokatu dituzte LOKE klubeko judoka infantil eta kadeteek asteburuan. Zarauzko tatamian lehiatu dira guztiak, eta maila oso txukuna eman: dominak kolokatu dituzte askok. Horrez gain, Euskadiko Txapelketan parte hartzeko txartelak poltsikoratu dituzte bost judoka gaztek. Pozarren dago Gorka Aristegi entrenatzailea; zoriondu egin ditu parte-hartzaile guztiak: "Txapelketa ikaragarria egin dute Zarautzen".

Infantil mailan, urrea jantzi dute Unai Guisado eta Julen

Ugartek, hiru borrokaldi irabazita. Brontzezko dominak lortu dituzte Iker Izquierdo, Aitor Santos eta Naiara Sagastik. Ederki lehiatu zen Tania Curiel ere.

### Almi Camposek, urrea

Larunbat goizean jardun ziren infantilak, eta arratsaldean kadeteak. Emaitza bikainak lortu zituzten: Almi Camposek, urrezko domina; Borja Dominguez eta Oier Guisadok, zilarrezkoa; eta Lucas Morales eta Martin Sebastianek, brontzezkoa. Mario Herrero ere parte hartu zuen, borrokaldi onak eginez.



TXINTXARRI

## Pilatwalk saioa, giro ederrean

Ostadar Ipar Martxako kideak bi orduz aritu ziren larunbatean, pilatwalk diziplina ikasten. Eva Espuelasek gidatu zuen saioa. Eguraldi txarra tarteko, Oriarte Landaberri eraikineko patioan aritu ziren ia denbora osoan. Gero, tarte batez atertu zuela baliatuz, herrian barrena osteratxo bat egin zuten, goizean zehar ikasitako praktikan jarritz.



Landaberri taldeko kideak, Udaberri Txapelketan parte hartu baino lehen. LOKE GIMNASTIKA

# LOKEko taldeak bikain Udaberri Txapelketan

Alebin mailako Landaberri 1 eta Santa Teresa taldeak podiumeko lehen postuetan izan dira; kadete mailako taldea, berriz, hirugarren sailkatu da. Aste honetako txapelketak, amateur eta eskolarteko A mailako bigarren fasea, bertan behera geratu dira, koronabirusagatik

## Txintxarri

Udaberri txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen martxoaren 8an, Donostiako Karmelo Balda kiroldegian, igandez. Gipuzkoako gimnastika taldeak lehiatu ziren bertan; LOKEk sei talde aurkeztu zituen eta alebin zein kadete mailan lehen postuetan izan ziren.

Alebin mailan lortu ziren emaitzarik onenak. 33 taldek parte hartu zuten lehiaketan, horien artean, Landaberri 1, Landaberri 2 eta Santa Teresa. Taldeek esku hutsik eta

pilotarekin egin zuten lan. Guztien artean, Landaberriko taldea izan zen puntu kopuru handiena lortu zuena eta honen atzetik Santa Teresa taldea sailkatu zen. Landaberri 2 taldea, berriz, zazpigarren izan zen.

Infantil eta kadete mailan uztailarekin duten trebetasuna erakutsi behar izan zuten gimnastak. LOKE-Oriarte 1 eta LOKE-Oriarte 2 taldeak infantil mailan izan ziren lehian, hamabost talde gehiagoren aurka. Azkenean, hamargarren eta hamalagarren

amaitu zuten lehiaketa hori, hurrenez hurren.

LOKEko kadete taldeak, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen uztai lanari esker. Maila honetan, bost talde izan ziren lehiaketan partehartzen.

Prestatzaileak pozik daude taldeek egindako lanarekin eta, batez ere, alebinek lortutako emaitzak nabarmentzen dituzte, "bi taldek lehen urtea dute-eta". Ondo bidean, txapelketako finala maiatzaren 10ean jokatu dute eta bertan erabakiko dira maila bakoitzeko irabazleak.



LASARTE-ORIA TRAIL

## Menditik kanpo ere gozaten

Mendia eta lehiaketa alde batera utzi eta Lasarte-Oria Trail taldeak urteroko bazkaria egin zuten martxoaren 7an, larunbatean. Giro ederrean, taldeko kideak Otegi sagardotegian bildu ziren eta ederki pasa zuten euren abenturak bata besteari kontatzen.

## 32. squash txapelketako izena ematea ireki da

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuak squash txapelketan izena emateko epea ireki du. Aurtengo txapelketa 32. edizioa izango da. Lehiaketa martxo bukaeran hasi eta ekainera arte luzatuko da.

Partidak Maialen Chourraut kiroldegiko squash kantxetan jokatu ditzate parte-hartzaileek, eta izena emateko baldintzei dagokionez, bakarria ezarri dute: hamalau urte baino gehiago edukitzea.

Izena eman nahi dutenek kiroldegiko kafetegira joan beharko dute martxoaren 20a, ostirala, baino lehen. Hamar euro ordaindu behar ditzate bazkideek inskripzioa egiteagatik.



## Maialen Chourraut Kiroldegia gaur itxita, ur mozketa dela-eta

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du ura moztuko duela bihar Maialen Chourraut udal kiroldegian, 12:00etatik 14:00etara.

Udalak barkamena eskatzen du horrek sor ditzakeen eragozpenengatik.

## Gomez Margallo garaile Aingeru Guarda igoera-Ibaetako krosean

Lasarte-Oriako korrikalaria hirugarren postuan sailkatu da Sahara krosetako 10 kilometroko proban

## Txintxarri

Aingeru Guarda igoera-Ibaetako krosetako jokatu zen martxoaren 7an, larunbatean, Donostiako Ibaeta auzoan. 29 korrikalari izan ziren irteera puntuan; Lasarte-Oriatik, bat bakarrik, Raul Gomez

Margallo, eta hark eramane zuten txapela. 6,1 kilometroko ibilbidea 21 minutu eta 46 segundotan egin zuen herritarrak. Ez da lehen aldian Gomez Margallok proba hau irabazten duena, iaz ere garaile izan baitzen.

Ibaetako garaikurraz gain, otsailaren 23an, Ormaiztegiako Sahara krosetako 10 kilometroko podiumean ere egon zen hirugarren mailan. Postu bera lortu zuen Gorka Gil herritarrak kros horretako 5,4 kilometroko proban.

## Teknikazio saioak

Bestalde, Ostadar SKTko junior, jubenil eta kadete mailako atletak Gipuzkoako Atletismo Federazioak Aste Santuan Benicassim eta Cambrilen egingo



Gomez Margallo lasterka. J. ZATARAIN


dituen teknifikazio saioetan parte hartzeko deia jaso dute. Naroa Furundarena, Enara Gonzalez eta Mainer Abete dira junior eta jubenil mailako deialdia jaso dutenak. Kadete mailan, berriz, Naroa Elvira, Irati Valdivia, Naroa Capistegui, Amane Mesa, Haritz Grijalbo, Jokin Rodriguez, Unai Riezu eta Alex Alkain dira.

Horiez gain, Zumeatarrak taldeko Aimar Sukuntza herritarrak ere jubenil eta junior mailako teknifikazio saiora joateko gonbita jaso du.


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK




**Oier**  
Zorionak maitia!!!! Askok maite zaitugu!!! Unax, Maddi, aita eta ama.



**Izaro**  
Zorionak politta, zure 4.urtebetetzean. Askok maite zaitugu. Muxu asko familia guztiaren partez!!!




**Markel**  
Zorionak Markel!!! Ondo pasatu zure 7. urtebetetzean. Aita, ama eta familiaren partetik.




**Irati**  
Zorionak corason! Egund polit-politta izan dezazula desio! Muxu pottolo-pottolo asko! Txin txin! Ailofyu!

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


**Ostirala, 13**



**Larunbata, 14**




**Igandea, 15**




**Astelehena, 16**




**Asteartea, 17**



**Asteazkena, 18**



**Osteguna, 19**



## HILDAKOAK

**Aurelio Palomo Diez.** Martxoaren 7an.  
**Fernando Serrano Pereda.** Martxoaren 4ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala, 13** GIL  
**Larunbata, 14** GANDARIAS-URIBE  
**Igandea, 15** GANDARIAS-URIBE  
**Astelehena, 16** DE ORUE  
**Asteartea, 17** URBISTONDO  
**Asteazkena, 18** GANDARIAS-URIBE  
**Osteguna, 19** ACHA-ORBEA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERRI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

### Biyak Bat erretiratuen elkarteko egoitza itxia

Eusko Jaurlaritzaren agindua jarraituz, Lasarte-Oriako Biyak Bat erretiratuen elkarteko egoitzeko ateak itxi dira gaur, beste jakinarazpenen zain.

Bertan egiten diren jarduerak ere bertan behera geratu dira. Martxoaren 26an aurreikusia zuten irteera ere ez da egingo.

Koronabirusaren hedapena eusteko neurriak direla eta, Eusko Jaurlaritzak Euskal Erkidego Autonomoko zahar etxeak eta erretiratu elkarteak ixteko agindua eman zuen asteazken arratsaldean.

### 'Oporrak bakean', familia bila

Lasarte-Oriako Udalak *Oporrak Bakean* proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du. Zortzi familia behar dira, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak hartzeko.

Interesatuak gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, [gizartez@lasarte-oria.org](mailto:gizartez@lasarte-oria.org) helbide elektronikora idatzi.

## SUDOKUA

		5			8		
				5	1	2	
		8	2	7			1 5
9		6	4				5
	1				2	9	7 8
		3			9	4	
			7				9
7	4				5		8
8		2		3			6

**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

**ERRENTAN EMAN**  
Partekatutako etxebizitza batean logela alokatzen da. Neska langile eta jator baten bila gabiltza. Etxea Lasarte-Oria erdialdean dago. Informazio gehiago jasotzeko deitu 666320520ra. Nekane

### LANA

**ESKARIA**  
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Langabetua naiz, eta prest nago garbiketa lanak egiteko etxeetan, edo haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko,

interna edo externa moduan. Harremanetarako zenbakia, 604 34 18 93.  
Pertsona eskaintzen da helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauean lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

### SALEROSKETAK

#### SALDU

Volkswagen California T-5, 2.5-TDI, 130 CV, Tredline salgai. Harremanetarako zenbakia, 670 420 9 66.

Suzuki Burgman 150 motorra salgai. 600 euro. Egoera onean. 607 165 592, Josu.

Gurpildun aukil bat saltzen dugu: berri-berria dago. Prezioa, 100 euro. Harremanetarako zenbakia, 609 55 63 38.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukilua + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA


DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Zinegoak.** Bilboko Gaylesbitrans XVII. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko lanak lehenengoz ikusi ahalko dira Lasarte-Orian:

- *Mi pequeño samurai*, Arantza Ibarra (Euskadi).
- *Jess*, Agnes Koleman (Costa Rica, Espainia, Txekiar Errepublikak).
- *Adlib*, Leire Acha, Nikte Berrospe, Eurie Cierbide Beñat Etxaburu, Arantzazu Martinez, Cristina Vaquero eta Irene Velasco (Euskadi).
- *Min Värld i din*, Jenifer Malmqvist (Suedia).
- *XY*, Anna Karín Lárusdóttir (Islandia).
- *La Mariachi*, Adán Ruiz (Mexiko).

Gonbidapenak eskuragarri daude Emakumeen Zentro Zibikoan eta Gizarte Zerbitzuetan. Hauek amaitzean sarrerak 5,50 euro balioko du.

Film guztiak jatorrizko hizkuntzan eskainiko dira euskarazko eta gaztelaniazko azpidatizkiekin.

Emakumeen Nazioarteko eguneko egitarauaren barruko ekimena.

Manuel Lekuona, larunbata, 19:00etan.

## OSTIRALA 13

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez, *Marrak*-en erakusketa ikusgai izango da martxoaren 31ra arte. Aurpegien eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Jalgi kafe-antzoia, egun osoan zehar.

### LASARTE-ORIA Dokumentala

Topatu Gazte proiektu komunikatiboak egindako *Zizelkariak* dokumentala eskainiko dute. Gazte astearen barruko ekitaldia. Mirentxu, 18:30ean.

### ANDOAIN Diaporama eta flamenko ikuskizuna

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, Emakume gazte bidaiariak diaporama eskainiko dute Amaia Armendariz eta Jone Perezek. Txilera egindako bidaiaz arituko dira. Ostean, 20:30ean, *Un grito de mujer* flamenko ikuskizuna eskainiko dute. Arrats elkartearen aldeko diru bilketa egingo dute. Gazte Lokala, 18:00etatik aurrera.

### USURBIL Soinurbil

Broken Brothers brass band taldea izango da kaleak alaitzen. New

Orleansko atzoko eta gaurko kaleko taldeen doinuak eta abesti orijinalak eskainiko dituzte. XVI. Soinurbil musika asteko ekitaldia.

Erdialdea, 19:30ean.

## LARUNBATA 14

### LASARTE-ORIA Urteurrena

Trumoi tabernaren urteurren bazkaria egingo da. Izena ematea Trumoi tabernan. Xirimiri, 14:00etan.

### USURBIL Ikuskizuna

*Trakamatraka* ikuskizuna eskainiko dute birziklatutako materialez egindako instrumentuekin. XVI. Soinurbil musika asteko ekitaldia. Artzabal plaza, 11:30ean.

### ANDOAIN Musika

Reincidentes eta Dientes de Luna taldeen kontzertuaz gozatu ahalko da. Ostean, Stepi Selektahren saioa izango da. Sarrera, 8 euro. Txartelak Lasarte-Oriako Ilargi tabernan eros daitezke. Sare herritarrak antolatutako ekimena. Gaztetxea, 22:30ean.

## ASTEARTEA 17

### LASARTE-ORIA Literatura txokoa

Literatura txokoko kideek Amets Arzallusen *Miñan* liburua aztertuko

dute. Bertsolari eta idazlea bertan izango da liburuari buruzko galderak erantzuteko.

A. Mercerero gunea, 18:30ean.

## ASTEAZKENA 18

### LASARTE-ORIA Dokumentala

*Sobrevivir* dokumentala eskainiko dute. Ane Iurria herritarrak eta bere ikaskideek Txileko eztanda sozialaren berri egin duten lana da. Ikasle eta herritarren testigantzak eskaintzen dituzte. Gazte astearen barruko ekitaldia.

Mirentxu, 20:00etan.

## OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak agenda hau argitaratu duen egunera arte, bertan proposatutako ekintzak ez dute aldaketarik jasan Koronabirusa dela-eta.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Sorry we missed you (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.

**Boonie Bears: abentura historiarren**  
Igandea: 17:00.

**Cholitas**  
Igandea: 19:30.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

**Volando juntos**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

**Hasta que la boda nos separe**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.

**Astelehena:**  
19:30, 22:00.

**Fidelio opera zuzenean**  
Asteartea: 20:15

### USURBIL

#### URBIL

#### Onward

Ostirala: 15:55, 17:00, 18:05, 19:15.

Larunbata: 15:55, 17:00, 18:05, 19:15.

Igandea: 15:55, 17:00, 18:05, 19:15.

#### Bloodshot

Ostirala: 15:45, 18:05, 20:15, 22:30, 00:50.

Larunbata: 15:45, 18:05, 20:15, 22:30, 00:50.

Igandea: 15:45, 18:05, 20:15, 22:30.

#### El hombre invisible

Ostirala: 16:15, 18:50, 20:10, 21:30, 00:05.

Larunbata: 16:15, 18:50, 20:10, 21:30, 00:05.

Igandea: 16:15, 18:50, 20:10, 21:30.

#### Parásitos

Ostirala: 19:00, 21:25, 00:10.

Larunbata: 19:00, 21:25, 00:10.

Igandea: 19:00, 21:25.

#### The Gentlemen: Los señores de la mafia

Ostirala: 20:05, 22:30, 00:55.

Larunbata: 20:05, 22:30, 00:55.

Igandea: 20:05, 22:30.

#### Sonic: La película

Ostirala: 15:45, 16:50, 17:55.

Larunbata: 15:45, 16:50, 17:55.

#### Adú

Ostirala: 16:35, 19:10,

Larunbata: 16:35, 19:10, 21:40, 00:10.

Igandea: 16:35, 19:10, 21:40.

#### Cuestión de justicia

Ostirala: 21:45, 00:30.

Larunbata: 21:45, 00:30.

#### La llamada de lo salvaje

Ostirala: 15:50, 18:00, 22:45.

Larunbata: 15:50, 18:00, 22:45.

Igandea: 15:50, 18:00, 22:45.

#### Hasta que la boda nos separe

Ostirala: 20:25, 22:45, 00:55.

Larunbata: 20:25, 22:45, 00:55.

#### Igandea:

20:25, 22:45.



### LABURPENEA

#### Boonie Bears: abentura historiarren

**Zuzendaria:** Leon Ding. **Gidoia:** Qin Wan, Rachel Xu. **Musika:** Roc Chen. **Herr:** Txina (2019). **ekoizpena:** Fantawild. **iraupena:** 90 minutu.

## Historiarren galduta

*Boonie Bears: abentura historiarren* filmaz gozatu ahalko da haur zinea atalean. Haurrei edo familia guztiari zuzendutako animaziozko pelikula euskaraz ikusteko aukera izango dute lasarteoritarrek.

Vick egurgilea eta Briar eta Bramble hartzak protagonista dituen seigarren filma da. Oraingoan, Vick eta hartzak kobazulo bateko parearen aurkitzen duten zulo misteriozko batetik pasa eta iraganera bidaiatzen dira.

Ez dakite nola bueltatu eta, gainera, animalia erraldoiz inguratuta daudela ohartzen dira.

Hala ere, buruan gauza bakarra dute: bazkaria. Horregatik hirukoia banatu egingo da. Briarrek gurlari ausarta izan nahi duen Feifei otso gaztearekin egingo du topo. Bitartean, tribu batek Bramble eta Vick bahituko ditu eta tribuko liderra Vickerekin zeharo maiteminduko da.

Guztiak elkartu eta XXI. mendera itzuli behar dira. Lortuko ote dute edo historiarren geratuko dira? Hirukoak ez dio sekula horrelako abentura bati aurre egin.

*Boonie Bears: abentura historiarren* 2020an Zinema Euskaraz programak estreinatuko duen bigarren pelikula da.



Xalolak kuadrillako lagunek 1934. urteko Lasarte-Oriara egin dute bidaia aurtengo Inauterietan. XALOLAK



Frida Kahlo. MAITANE REBE



Osaba Sam. ERIK ARZALLUS

### Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariko Inauteritako argazki lehiaketak badu irabazlea. Xalolak kuadrilla lasarteoriatarren *Lasarte-Oria 1934* argazkiak eraman du saria.

Herritarrek bederatzi argazki aurkeztu zituzten TXINTXARRI aldizkariko webguneko lehiaketara. Otsailaren 21etik 28ra arte izan dute irakurleek boza emateko aukera. Ugariak izan dira argazkiak jasotako babes bozak.

*Lasarte-Oria 1934* izan da garaile. Garaiko jantziak soinean, dotore jantzita agertzen dira Xalolak kuadrillako sei nesken irudiak 513 boza jaso ditu. Bigarren sailkatuak Maitane Reberen *Frida Kalho* izan da bigarren sailkatua. Garailearekin lehia bizia izan du, baina 36 boza gutxiago lortuta bigarren geratu da. Erik Arzallusen *Osaba Sam* izan da hirugarren postuan, 188 bozekin. Garaileek Errigorako saski bat irabazi dute.

# Xalolak kuadrillaren argazkia izan da garailea



## Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

**ERRIGORA SORTA** ekologikoa zozkatuko ditugu. Eman izena martxoaren 20a baino lehen.

Bazkide egiteko: [www.txintxarri.eus/bazkidetu/](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu/)

[harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



600 857 586  
[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA  
 Tel. 943 36 10 80

## Oparitzeko ideia batzuk:

bizar-kentze makina  
 elektrikoa uretarako



hezegailu ultrasonikoa

gorputzerako ile-kentze makina



## Zorionak aita!

gatorpea